


## Federación Mercantil de Gipuzkoa - Gipuzkoako Merkatarien Elkarte

Gipuzkoako Merkatarien Elkarte 1932. urtean sortu zen Gipuzkoako merkatarien interesak defendatzeko. Gaur egun 1500 bazkide inguru ditu. Hasiera baten Donostian kokatua zegoen baina gure bazkideen %50 Gipuzkoako kerrietakoa zenez, 1998ko uztailean Eibarren bulegoa ireki zen. Bulego berri honen helburua bere bazkideei zerbitzu pertsonalagoa eta erantzun azkarragoa eskeintzea da.

Bere ibiladian Gipuzkoako Merkatarien Elkarteak Gipuzkoako merkatoriengatik eta merkatarien alde lan egin du, arlo desberdinetan : era guztietako aholkularitza emanaz (finantzieroa, fiskala, kontabilitate-zerbitzua, lan-aholkularitza, nominen eta gizarte-aseguroen zerbitzua, aholkularitza juridikoa eta merkatal aholkularitza), dohako prestakuntza ikastaroak antolatzen merkataria eta beraien langileentzako, merkatarien aldeko era guztietako laguntzak bideratzen eta beraien interesak defendatzen instituzio ofizialen aurrean : Udaletxeak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza ...

Gipuzkoako Merkatarien Elkartearentzako euskera merkatariek eskeini behar duten zerbitzu bat da. Gainera Eusko Legebiltzarrak 2003ko abenduaren 22an 6/2003 legea onartu zuen.

- Legearen 37. artikularekin bat etorritik kontsumitzaileek eta erabiltzaileek ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskeraz nahi gaztelaniaz jasotzeko eskubidea dute.
- Legearen 40. artikulua dioena zera da: jendeari produktuak saldu eta zerbitzuak egiteaz arduratzen diren establezimenduek, kontsumitzaile eta erabiltzaileekin harremanetan bi kizkuntza ofizialak bermatuko dute. Hau honela egingo da:




## Federación Mercantil de Gipuzkoa - Gipuzkoako Merkatarien Elkartea

- errotuluak, oharrak eta, oro har, jendeari zuzendutako jakinarazpenak euskeraz eta gaztelaniaz emanez.
- Kontsumitzaileei eta erabiltzaileei betetzeko egiten diren imprimaki edo eredu ofizialak bi hizkuntzan emanez
- Kontsumitzaileak edo erabiltzaileak berak hizkuntza ofizialeko bakarra erabiltzea nahi duela adierazi ezean, bi hizkuntzatan idatziz atxikipen-kontratuak, klausula ereduak dituzten kontratuak, araupeko kontratuak, baldintza orokorrak eta kontartu horiei buruzko edo horiek egitearen ondoriozko agiriak.

Era berean, kontsumitzaile eta erabiltzaileei arreta emateko gertu egon behar dute, horien hizkuntza ofiziala edozein dela ere.

Lege hau betetzen laguntzeko Gipuzkoako Merkatarien Elkarteak bere bazkideei dohaineko ikastaroak eskaintzen dizkie. Ikastaro hauek merkatariei eta beraien langileei zuzenduta daude.

2005 urtean otsailetik ekainera ikastaro hauek eskainiko ditu: Euskara Merkataritzan II. maila, III. maila eta IV. maila. Ikastaro hauek 60 ordukoak dira . Lehenengo bi mailak euskaldun berrientzat dira eta hirugarrena euskaldun zaharrentzat. Ikastaro hauekin lortu nahi dena hau da: kontsumitzaileei eta erabiltzaileei arreta euskaraz ematea.



## Federación Mercantil de Gipuzkoa - Gipuzkoako Merkatarien Elkarteak

Bete alde batetik, Gipuzkoako Merkatarien Elkarteak bere bazkideei dirulaguntzei buruzko informazioa ematen die eta hauetako bat errotuluak euskeraz nahiz erderaz jartzeagatik izaten da.

Dena den, nahiz eta aurrerantz pauso batzuk eman diren , arlo asko daude hobetzeko: kontratazioa (gero eta gehiago langileak kontratazeko orduan merkatariek baldintza artean euskera jakitzea eskatzen dute), errotulazioa, poltsak, publizitatea ea..

Gipuzkoako Merkatarien Elkartearen asmoa beti bezala, merkatariei bide honetan laguntzea da eta horretarako irekita gaude bai sektore hauek bai beste sektoreetatik iristen zaizkigun iradokizun guztiak aintzat hartzeko eta denen artean arlo horietan lanean jarraitzeko.

